

OHIKO GALDERAK

Zer da GazteTxekea?

GazteTxekea 50 euroko prestakuntza-txekea da, Hirukidek bere gazte bazkideei (Hirugazte) eskaintzen diena, haien prestakuntza sustatzeko.

Nork eska dezake?

15 eta 25 urte bitarteko edozein gaztek, Hirukideko bazkide den familia bateko kidea bada.

Zertarako erabili daiteke?

Prestakuntzarekin lotutako gastuak estaltzeko, hala nola:

- Musika, arte edo bestelako diziplina artistikoetako ikastaroak.
- Online prestakuntza.
- Aisialdiko eta denbora libreko begirale ikastaroak.
- Sorosle ikastaroak.
- Enplegarritasuna hobetzeko bestelako ikasketak.

Non erabili daiteke?

GazteTxeke ikonoarekin identifikatuta dauden **Hirudendetan**.

Nola eskatu dezaket?

Online formularioaren bidez. Datuak egiaztatu ondoren, txekearen zenbatekoa 24-48 lan-orduren barruan sartuko da.

GazteTxeke bat baino gehiago eskatu al dezaket?

Ez. Hirugazte bakoitzak GazteTxeke bakarra jaso ahal izango du.

Aurretik GazteTxekearen onuradun izan banaiz, beste bat eskatu al dezaket urte batzuk pasata?

Ez. Hirugazte bakoitzak bizitza osoan behin bakarrik jaso ahal izango du GazteTxekea.

Noiz arte eskatu daiteke?

Kanpainarako bideratutako aurrekontu-partida agortu arte.